



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ESP. ZENBAKIA	2015IPLE0010
GAIA	2015-10-09 OHIKO OSOKO BILKURA

2015-10-09ko EZOHIKO UDALBATZA

Bertaratuak

- Jose Luis Ugartemendia Arregi
- Iruñe Echeverria Amilibia
- Pedro Mari Otaegi Urquizu
- Maria Dolores Otaño Garciarena

Bertaratu ez direnak

- Manuel Labaka Garmendia

Idazkaria

- Lierni Muñoa Salaverria

Bilkurari hasiera 18:00 eman zaio.

Aztergaiak

1. Gaia: PREMIAREN ONARPENA
2. Gaia: AURREKO AKTA ONARPENA
3. Gaia: BASO BIDE ORDENANTZA
4. Gaia: ORDENANTZA FISKALAK
5. Gaia: 3/2015 KREDITU ALDAKETA
6. Gaia: LANDA EREMUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA
7. Gaia: DEKRETUEN BERRI EMATEA

1.- PREMIAREN ONARPENA

Osoko bilkurak aho batez onartu du bilkuraren premiazkotasuna. Eguneko ordenaren 6. puntuak sortarazia.

2.- AURREKO AKTA ONARPENA

Osoko bilkurak aho batez, 2015-08-28ko akta onartu da

3.- BASO BIDE ORDENANTZA

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehen.- Hasierako onarpena ematea baso bideen ordenantzari.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDAL TITULARTASUN EDO UDALAREN ALDE BIDE-ZORRA ERATU DEN BIDEEN
APROBETXAMENDU BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. ARTIKULUA.

Udal honek, Tokiko Erregimenaren Oinarrii buruzko 7/85 Legearen 25. artikulua, Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudia eta horiekin bat egiten duten bestelako legezko xedapenak kontuan hartuta, arautu egin du udalaren titulartasuneko nahiz erabilera publikoko bideen aprobetxamendua, ibilgailu astunak bertatik ibilita zorua hondatzeko arriskua dagoelako. Horrenbestez, zenbait kasutan, aprobetxamendu horretarako udal lizentzia beharko da aurrerantzean.

2. ARTIKULUA.

Ordenantza hau Beizamako lurralde eremu osoan aplikatuko da, zehazki, udal titulartasunekoak edo erabilera publikoa bermatzen duten bideetan.

3. ARTIKULUA

3.1. Beizamako Udalari dagokio herriko zein landa eremuko bide publikoen edo erabilera publikodun bideen garbiketa, zaintza, mantenu eta konpontze betebeharrak betetzea; beti ere, urtez urteko aurrekontu doikuntzak kontuan hartuta.

3.2. Bide horien zaintzarako, Udalak legeak aurreikusitako moduak erabili ditzake, alegia, zuzena ala zeharkakoa.

4. ARTIKULUA

Bide hauen erabilera librea izanik, landa bideek nolako ezaugarriak dituzten ikusita eta ingurunea babestu nahian, ibilgailuak erabili ahal izateko hurrengo arau orokorrak ezartzen dira:

4.1. Debehatuta dago ondorengo ibilgailuekin pasatzea : oruga ibilgailuak, gurpiletan kateak eta antzekoak dituztenak, arrastekoak zoruaren gainetik edota erroadura bandakoak eta hiru ardatz baino gehiagoko kamioiak.

4.2. Salbuespenak daude jarduketa berezi eta puntualeko ezinbesteko kasuetarako, eta horretarako dagokion baimena eskatu eta lortu beharko dute. Salbuespen hori baso-ustiapenen kasuan ezarriko da, hau da, egurra ateratzerakoan, eta hori egikaritzeko, beharrezkoa izango da udaletxean baimena eskatu eta lizentzia lortzea.

4.3. Nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenetan, eta baserriko obrak egikaritzeko jardunean ez da inolako baimenik eskatuko ekintza gauzatu ahal izateko.

5. ARTIKULUA

Derrigorrezkoa da lizentzia eskuratzea aurreko artikuluan ikusitako erabileretarako jardunean hasi aurretik, zera, baso ustiapenen jardunean hasi aurretik.

6. ARTIKULUA

Dagokion lizentzia Udalari zuzendutako idazkiaren bitartez eskatuko da; ibilbide nagusia eta beste aukera batzuk, kasua balitz, argi eta garbi adieraziz, ekintzaren erabilera, zenbatekoa eta garrantzia jakitearren, eta oro har beharrezko informaziorako funtsezkotzat jotzen diren argibide guztiak, promotoreak edo behar bezala identifikatutako ordezkariak izendatuta.

4. artikuluan deskribatutako erabileretarako baimen eskaerak, ondorengo datuak eduki beharko ditu nahitaez:



BEIZAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- Lursailaren jabearen edo kontratistaren identifikazio datuak.
- Garraiorako erabiliko den ibilgailuari buruzko datuak.
- Kubikazioa eta garraiatuko den materiala.
- Materiala pilatzea beharrezkoa balitz, non egingo den zehaztea, kokapen plano baten bidez.
- Materiala aterako den lekuaren izena eta kokapena, katastroko erreferentziarekin zehaztuta.
- Garraiolariaren datuak.

Arau hauetan ezarritako baldintzak betearazteko baimena eskatzeko betebeharra, sustatzailea edo haren ordezkaria den pertsona fisiko zein juridikoarena izango da.

7. ARTIKULUA

Eskaera beharrezko baldintzetan aurkezturik, tramitera onartuak eta, kasua balitz, kasuaz ari den udal teknikariaren txostena entzunik, eskuduntza duen organoak lizentzia eman edo ukatu egingo du eskaera aurkezten den egunetik 10 lan eguneko epean.

8. ARTIKULUA

Basoa ustiatzeko lizentziaren eskaerarekin batera, erabilpenerako baldintza orokorrak eta kasu bakoitzari bereziki dagozkionak adieraziko dira, horiek guztiak nahitaez betebeharrekoak izango direlarik. Ezarri daitezkeen beste baldintza batzuen kalterik gabe honako hauek kontutan izan beharko dira:

- Erabilera burutzerakoan bidea beste edozein erabilgarritasunerako prest dagoela bermatu beharko da, horretarako beharrezkoak izan litezkeen garbiketak eta konponketak eginda.
- Garraiolariak, garraioari ekiten dioen edozein unetan, baimena eman duen udal erabakiaren ziurtagiri originala edo kopia berekin izango ditu eta beharrezkoa denean udalaren ordezkariari erakutsi beharko dio.
- Lizentziarekin hirugarrenengo bat ez dela kaltetzen ulertuko da, eta lizentzia berak ez du kasu bakoitzean arauzko beste baimenak lortu beharraz salbuesten.
- Lizentzia jabetza eskubidetik salbu emango da.

Eguraldi txarra egiten duenean, eta bidean kalte larriak eragiteko arrisku justifikatua dagoenean, udalak basoa ateratzeko jarduera gelditu arazteko ahalmena izango du.

9. ARTIKULUA

Tasa ordaintzera behartuta dago, erabilera komun bereziko udal-lizentzia eskatzen duena eta, nolana ere, erabilera komun berezia egiten duena. Tasa honen ordainketa bideratua dago egur ustiaketa amaitu ondoren bideen egoerari buruzko egin beharreko txosten teknikoaren gastuen sostengurako.

Tasaren zenbatekoa, urteko Udal Ordenantzak esaten duenaren arabera izango da, 2016rako 50 ezartzen direlarik baimen bakoitzeko.

10. ARTIKULUA

Lizentziaren erabiltzaileak berme fidantza bat utziko du jarduera bitartean sor litezkeen kalteei erantzuteko. Berme fidantza hori jarduera hasi aurretik gordailutu beharko da legeak onartzen dituen moduetako bat erabiliz.

11. ARTIKULUA

Egur garraioaren fidantzaren zenbatekoa hurrengo eskala honen arabera zehaztuko da:



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Egur garraioak.

- 100 m³-rainoko egur kopurua 600,00 € fidantza kilometro bakoitzeko.
- 500 m³-rainoko egur kopurua 1.500,00 € fidantza kilometro bakoitzeko.
- 500 m³-tik gorako egur kopurua 3.000,00 € fidantza kilometro bakoitzeko.
- Gutxiengo fidantza, edozein kasuetan 600 eurokoa izango da.

12. ARTIKULUA

Ordaindutako fidantzaren itzulketa eskatzeko Udalari idazki bat bidali beharko zaio, lanak burutu direla eta hala bada, sortutako kalteak adieraziz.

13. ARTIKULUA

Aurreko artikuluan aipatutako idazkia aurkezten denetik 10 lan eguneko epean, udal teknikariaren txostena ikusirik, eskuduntza duen organoak erabakiko du fidantzaren itzulketa, hala badagokio, edota lizentziaren jabeari jakinaraziko zaio zer konponketa burutu behar duen. Jakinarazpena egin eta hilabeteko epean beharrezko konponketak burutu ez badira, Udalak, indarrean dagoen Prozedura Administratiboaren Legeak, exekuzio subsidiarioari buruz dioenaren arabera erabakiko du.

14. ARTIKULUA

Baldin eta utzitako fidantza, zuzenean edota zeharka sortutako kalteen konponketa gastuak estaltzeko nahiko ez balitz, Udalak eragindako kaltearen arabera erantzukizuna eskatu ahal izango dio lizentzia jabeari.

15. ARTIKULUA

Titulartasun edo erabilera publikoko bideen garbiketa, elur kentze, mantentze eta konpontze lanak udalaren betebeharrak izango dira. Gainerako lanak egiteko beharra sortuz gero, alderdi guztien adostasunez, auzolana erabili ahal izango da.

16. ARTIKULUA

Erantzukizun administratiboa izango dute artikulua honetan sailkatutako arau-haustek egiten dituztenek:

16.1. Arau-hauste arinak:

- a) Ordenantza honen 4 eta 5. artikulua jarraituz, baserri bideen erabilera berezia behar den baimenik gabe egitea.
- b) 9. artikulua ezarritakoaren arabera, baso ustiapenen kasuan, baserri bideen erabilera fidantza gordailutu gabe gauzatzea.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

16.2. Arau-hauste larriak:

Artikulu honen azpi-atalean ezarritako arau-hausteak, hirugarrenei edota jabari publikoari kalteak sortzen dizkienean.

17. ARTIKULUA

Udalak ordenantza aginduekiko arau-hausteak zigortzeko prozedurari hasiera emango dio ofizioz edo partikularrek egindako salaketaren ondorioz. Bidearen eta bertako osagaien aurka egindako egintzak delitu edo falta izan daitezkeenean, eskumena duen Aginte Judizialari dagokion txostena igorriko zaio eta honek ebazpena ematen ez duen bitartean ez da zehapen prozedurarekin jarraituko.

18. ARTIKULUA

16. artikulua aipatzen dituen arau-hausteak eragindako ez-betetze, kalte edo hondaketak, kasua balitz, ondorengo isun hauekin zigortuko dira:

- a) Arau-hauste arinak, gutxienez, 100,00 euroko isuna izango dute.*
- b) Arau-hauste larriak, gutxienez, 1.000,00 euroko isuna izango dute.*

BUKAERAKO XEDAPENAK

Udalak ahalmena du, ordenantza hau interpretatzerakoan, sor litezkeen edozein arazo konpontzeko.

AZKEN XEDAPENA

Honako ordenantza hau indarrean sartuko da behin bere Testua osorik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta Erregimen Lokalari buruzko oinarrien Lege Erregulatuzailearen 70.2 artikuluaaren tramiteak betetzen direnean.

Bigarrena.- 30 eguneko epez GAOn argitaratzea jende aurrean egon dadin dagokion alegazioak aurkezteko.

Hirugarrena.- Halakorik ez bada behin betiko izaerarekin onartua geratuko da.

4.- ORDENANTZA FISKALAK

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea 2016rako ordenantza fiskalei, 2015ekoekin alderatuz aldaketa hauek barneratzen direlarik, gainontzeko eduki guztian 2015eko kopuru berdinak mantenduko direlarik:

- Hilerriko tasetan exhumazio tasa barneratuko da. Lan egindako orduko 25 eurotako.
- Baso bideen erabilerarako 50 euroko tasa ezartzea.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Pelletaren tasa kentzea, udalak zerbitzua eteten badu.
- Taxi zerbitzuari dagokionean 2015eko prezio berberak mantentzea

Bigarrena.- 30 eguneko epeaz GAO on argitaratzea jende aurrean egon dadin dagokion alegazioak aurkezteko.

Hirugarrena.- Halakorik ez bada behin betiko izaerarekin onartua geratuko da.

5.- 3/2015 KREDITU ALDAKETA

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehen.- Hasierako onarpena ematea 3/2015 kreditu aldaketari kreditu gehigarri motakoa, honako edukiarekin:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 210.150.00.01 2015	azpiegitura konponketa	500,00	800,00	1.300,00
1 227.163.00.01 2015	elur kentzeko lanak	5.300,00	500,00	5.800,00
1 221.164.00.01 2015	argindarra,hilerria	100,00	100,00	200,00
1 221.337.00.01 2015	argindarra,natur eskola	200,00	700,00	900,00
1 226.334.00.06 2015	ihad.sozio-kulturalak	9.800,00	5.124,67	14.924,67
1 221.342.00.01 2015	argindarra,frontoia	500,00	100,00	600,00
1 221.425.00.06 2015	pelett argindarra	2.200,00	200,00	2.400,00
1 221.425.00.02 2015	pelett	11.670,00	1.000,00	12.670,00
1 210.453.00.01 2015	errepide konponketa	500,00	300,00	800,00
1 210.454.00.01 2015	auzo bide konponketa	500,00	1.000,00	1.500,00
1 224.912.00.99 2015	udal ordezkarien aseguruak	1.000,00	1.500,00	2.500,00
1 224.920.00.01 2015	aseguruak.eraikin eta lokalak	3.300,00	500,00	3.800,00
1 222.920.00.01 2015	telefonoa, udala	1.450,00	200,00	1.650,00
1 226.920.00.99 2015	beste hainbat gastu	500,00	1.000,00	1.500,00



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1 470.430.00.01 2015	IRAURGI LANTZEN	0,00	200,00	200,00
1 933.011.00.01 2015	amortizazioa luzerako kredituak	12.800,00	400,00	13.200,00
1 623.425.00.02 2015	NATUR ESKOLA ETA UDALETXEA KALEFAZIOA	0,00	15.377,33	15.377,33
GUZTIRA		50.320,00	29.002,00	79.322,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 221.323.00.01 2015	argindarra,aurrekola	700,00
d	1 211.439.00.01 2015	OSTATUKO UR BERO INSTALAZIOA	311,15
d	1 211.920.00.01 2015	eraikuntzen konponketa eta mantenimentua	1.000,00
d	1 215.920.00.01 2015	informazio prozedurarako ekipamendua	400,00
d	1 226.929.00.01 2015	kreditu globala	1.616,91
d	1 481.335.00.02 2015	euskara ikastaroa	365,00
d	1 620.170.00.01 2015	zuhaitz erosketa garrintzarako	1.000,00
d	1 227.326.00.08 2015	garraio eskolarra	8.817,10
d	1 480.425.00.01 2015	pellet zerbitzu mozteagatiko indemnizazi	10.001,00
a	2 870.01 2015	altxordegi gerakina	4.790,84
FINANTZAKETA GUZTIRA			29.002,00

Bigarrena.- 15 eguneko epez GAO n argitaratzea jende aurrean egon dadin dagokion alegazioak aurkezteko.

Hirugarrena.- Halakorik ez bada behin betiko izaerarekin onartua geratuko da.

6.- LANDA EREMUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA

Alkateak jakinarazi du landa Eremuko dirulaguntza bideratzeko epea urriaren 14an amaitzen zela eta horregatik osoko bilkura hau deitua izan dela, dagozkion erabakiak hartzeko.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Honekin batera adierazi du bere asmoa dela dirulaguntza honetara aurkeztea elizaren parean dagoen errepide beste aldeko udalaren partzelan etorkizunean burutu nahi diren etxebizitzentzat lehenengo lur mugimenduetarako dirulaguntza eskatzea.

Honen inguruan idazkariak 1/2015 erreparoa burutu du ondorengo edukiarekin:

1.- Txosten hau plenoko deialdiarekin batera igorri beharrean nago eta gaur asteazkena urriak 7 ez dut inolako dokumentaziorik proiektuaren edukiaren inguruan, eta zinegotziek ere ez, ostiralean izango den plenoko erabakia jantzi ahal izateko.

2.- Aipatu dutenez, Elizaren pareko lur sail horretan udalak etxebizitzak burutzeko asmoa du eta hau izango litzateke proiektu horren lehenengo fase bat. Momentu honetan ez dago udal honetan informaziorik faseen banaketaren inguruan.

3.- Egun indarran dagoen planeamenduak ez du inolako etxebizitza promozio burutzea ahalbidetzen aipatutako lur sail horretan. Udal zinegotziek mahai gainean dute aurreko korporaziak utzitako plan orokorraren hasierako onarpena jaso beharko lukeen dokumentua eta oraindik ez dute, onarpen hau burutu, beraz lehenengo pauso urbanistikoak ere eman gabe daude.

4.- Ustezko lehen fase honen kostua 250000 euro inguruan egokitzen da. Udal honen karga finantzarioa % 30 ekoa da. Kopuru honek udalaren aurrekontuaren % 5ean kokatzen den amortizazio eta interesak urtero ordaindu beharra suposatzen du.

5.- Udalak egun 67000 euroko gerakin garbia du. Gerakin hau zeharo baldintzatua aurkitzen da Olanoegiko, Udalaren eta Natur eskolaren berogintza sistema aldaketaren kostuei. Une honetan udalak ez luke erabili behar aipatu gerakina Pelletari lotutako berogintza arazoa konpontzea ez den ezertara. Kopuru honetatik 55000 etxebizitzetarako gorde beharrean gaude, foru aldundiak ITTEN entitate bidez bideratuko duen laguntza oraindik ere ez baitago zehaztua kopururik txikienean ere.

6.- Udal korporazioak aipatzen du euskal gobernuko dirulaguntza bidez finantzatu behar duela proiektua, baina gaurko datarekin udal honek ez du inongo garantiarik aurkezten den proiektuak zein dirulaguntza jasoko duenaren inguruan, eta hori dela eta udalak bere ahalbide propioekin edo kreditu bidez finantzatu beharko du proiektua bere osotasunean.

7.- Hori horrela izanda udal honek 12000 euroko gerakin librea izango luke proiektu hau gauzatzeko. Honen arabera 238000 euroko kreditu bat eskatu beharko luke. Zorpetze mailaren analisiaren emaitza honakoa da:

	Situación 1 de enero	Nuevas cargas	Total
Cargas financieras	15.486,48	17.748,15	33.234,63
Deuda viva	123.833,43	238.000,00	361.833,43
Margen endeudamiento	88.682,33	17.748,15	70.934,18
Derechos reconocidos	358.319,16		358.319,16
% carga financiera	4,32	4,95	9,28
% deuda viva	34,56	66,42	100,98
% margen endeudamiento	85,13	17,04	68,09

Honen arabera udalak urteko 33234,63 euro ordaindu beharko lituzke amortizazioagatik.

Finantzaketa operazio honek % 66,42ko zor bizia izatea suposatzen du eta beraz foru aldundiaren esku dago operazio honen onarpena.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

KONKLUSIOAK

- 1.- Indarrean dagoen hirigintza araudiaren aurkakoa dela obra hau burutzea, egun indarrean dagoen araudiak ez baitu baimentzen etxebizitzaren promozio bat burutzea aipatu kokagunean. Une honetan herri honetan Plan Orokorra onartuta ez izateagatik obra batzu burutu gabe dituzte partikularrek, udalak lizentzia ezin duelako eman. Araudi urbanistikoa era berean aplikatzen zaio udalari eta udal honek ezin du lizentziarik gabeko obrarik burutu.
- 2.- Udal honek dagoeneko % 34a suposatzen duen zor bizi bat du eta hori bikoiztearen akordioa Foru Aldundiaren eskutan geratzen da, kreditu aldaketa ezin delarik burutu onarpen hau lortu arte.
- 3.- Aipatzen ari garen proiektuak 4 fase gutxienez izan ditzate eta udalaren zorpetze maila handiagoa izatea oso posible da bere osotasunean aurre egin ahal izateko proiektu honi, beraz lehenengo fase honetan udalaren zor bizia ia bere osotasunean agortzeak udala maniobrabilitate gaitasunik gabe geratzea suposatzen du.
- 4.- Euskal Gobernuak dirulaguntza parte hartu ahal izateko udalak proiektua garatuko duenaren akordioa hartu behar du horrek suposatzen duen erantzukizun guztiarekin, ezin baitugu jakin finantzaziorik udalak lortuko duen edo ez eta lortuz gero ze mailatakoa.
- 5.- Udal korporazioak udal aurrekontuan 250000 euroko kopurua barneratu duenaren erabakia hartu behar du eta ostirala 9ko plenoan kreditu aldaketari hasierako onarpena eman ahal izango litzaioke bakarrik.
- 6.- Erreparo hau, Euskal Herriko Kontu Tribunalera igorriko da, zinegotzien esku geratzen delarik udal idazkari-kontu hartzailearen aurkako txostenaren erabakiak hartzearen erantzukizuna.

Hori horrela izanda, udal korporazioak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2015eko Landa Garapenerako dirulaguntza ez erabiltzea etxebizitzaren proiektuaren lehen fasea egiteko, eta 2016ko deialdirako lan egitea udalak gaia aurreratuagoa izanik, dirulaguntza horretara proiektu berberarekin aurkeztu ahal izateko.

7.- DEKRETUEN BERRI EMATEA

Alkateak 2015eko 45 eta 58 bitarteko dekretuen berri eman du.

Osoko bilkura, 19:40etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Beizaman, 2015eko urriaren 16an

Lierni Muñoa Salaverria
Idazkari Kontu-hartzailea